

Gaur egun izugarrizko beharra dugu elektrizitatea kontsumitzeko, izan ere gaur egungo teknologia guztiek beharrezkoa dute elektrizitatea. Beraz, gure ondasunak behar hori asetzen du, elektrizitatearekiko dugun beharra. Arazoa da, hainbat enpresak energia hori lortzeko natura kutsatzen dutela, gure enpresak aldiz, hori aldatu nahi izan du. Beraz, naturan eragina izango ez duen metodo berritzaile bat asmatu dugu, zehazki esanda, gimnasioko makinak erabilitakoan sortutako energia bilduko duen aparatua.

Berrikuntza honek, naturan ez du eragin negatiborik, energia modu natural batean sortzen baita.

Ondorioz, honek lehiakideengandik ezberdintzen gaitu, zehazki esanda, naturarekiko dugun konpromisoak. Beraz, bezeroak gehiago ordaintzeko prest egongo dira naturaren garrantziaz kontzientziatu ezker.